

Evangelio de San Mateo traducido al vascuence roncalés de Vidangoz

por

D. Prudencio Hualde Mayo

**Jesu Cristo gore Jeinaren
Evangelio Saintiua segun San Mateoc**

LEIN CAPITULUA

Jesu-Cristoren genealogia: bere concepcionia Espiritu-Saintiuaren obraz, eta bere sortarzuna.

- 1.— Jesu-Cristoren genealogia, Dabiden seme, Abraamen seme.
- 2.— Abraanec engendratucion Isaagui: Issaaguec engendratucion Jacobi: Jacobec engendratucion Judasi eta bere anasser.
- 3.— Judasec engendratucion Tamarenganic Faresi eta Zarari. Faresec engendratucion Esroni. Esronec engendratucion Arami.
- 4.— Aramec engendratucion Aminadabi. Aminadabec engendratucion Nasoni. Nasonec engendratucion Salomoni.
- 5.— Salomonec engendratucion Raabenganic Booci. Boocec engendratucion Ruth enganic Obedi, Obodec engendratucion Jeseri. Jeseec engendratucion erregue Dabidi.
- 6.— Dabid erreguec engendratucion Salomoni Uriasen emazte izancena-ganic.

(I) De la colección de manuscritos del Príncipe Luis Luciano Bonaparte que se conserva en el Archivo de la Diputación Foral de Navarra (véase la R. I. E. V. Tomo XII, pág. 189, n.^º 76) y *Euskera*, XII urtea, II-III-IV, 1931, Yoraiña-Lotazila. pág. 257.

7.— Salomonec engendratucion Roboami. Roboamec engendratucion Abiasi. Abiasec engendratucion Asari.

8.— Asac engendratucion Josafati. Josafatec engengratucion Joramii. Joramec engendratucion Oziasi.

9.— Ociasec engendratucion Joatami. Joatamec engendratucion Acazi. Acazec engendratucion Ecequiasi.

10.— Ecequiasec engendratucion Manasesi. Manasesec engendratucion Amoni. Amonec engendratucion Josiasi.

11.— Josiasec engendratucion Jeconiasi eta bere annasser Judiuac Babiloniara eraman izaneuren tempravi abanchu.

12.— Eta Judiuac Babiloniara eraman izanzren gueroztic, Jecaiasec engendratucion Salatieli. Salatielec engendratucion Zorobabeli.

13.— Zorobabelec engendratucion Abjudi. Abiudec engendratucion Eliacimi. Eliacimec engendratucion Azori.

14.— Azorec engendratucion Sadoqui. Sadoquec engendratucion Aquimi. Aquimec engendratucion Eliudi.

15.— Eliudec engendratucion Eleazari. Eleazarec engendratucion Matani. Matanec engendratucion Jacobi.

16.— Jacobec engendratucion Joseri, Mariaren esposua, nortaric sortucen Jesus, sobre-icenez Cristo.

17.— Cola dra amalaur generacione gueinac Abraamendanic Dabiden daino eta Dabidenac judiuac babiloniara eraman izanzren bitartio, amalaur generacione; baitare amalaur dra generacioniac judiauac babiloniara eraman izanic gueroz Cristo bitartio.

18.— Baya Crist oren sort iua izancen guisa cont an: cegalaric bordaltruc Maria bere ama Joserequin, erdencen concebituciola bere entrañetan Espiritu Saintiaren obraz lein isunto egonbaguetaric.

19.— Baya Jose bere senarra, izait ian cena guisa just o, et a nay ezaularic infamatu, pensatucion eitzia issilqui.

20.— Hura pensamentu contain zagolaric, nona Geinaren aingurubat aparecitutzau amestan erraiten: Jose Dabiden semia, etzaizu erreceeloric ecun recibitaco *zore etsen* Maria zore emaztia, ceren izandena engendratruc bere entrañetan, tzu Espiritu Saintiaren obra.

21.— Eta cola erdirendizu semebat zoini izarenbaitzu icenez Jesus; bada hura da salbatuviardiona *edo libratu* bere iria bere veticatiuetaric.

22.— Zoin guciau equincen cumplitruc izanlein Geinac antzinetic errancia Profetaren medioz, zoinec erraitenbaitu.

23.— Ssaquin zacei vergin batec conceviten eta erdirendiola seme bat, zoini izarendabei izenez Emanuel, zoinec vueltatruc naidu erran Jangueicoa gorequi.

24.— Conequin Josec, iratzartari, eguincion Geinaren ainguriuac manatuzauna, eta erreccibitucion bere emaztia.

25.— Eta ez izaguntu edo tocatubague emoncion arguiara bere Seme Primogenitiua, eta izari zaun Jesusen icena.

BIGARNEN CAPITULUA

Maguen adoracionia: Jesusen Egiptora inesitia: inocenten muerte cruenta (edo gassoa): Jesus, Maria eta Jose bueltatandra Egiptotic.

1.— Sortruc bada izanbaicoz Jesus judeaco Belenen, reinatan-ciolaric Herodesec, nonta magobanac ssincren iguzqui erquingutic Jerusalenera galteguiten: ¿nondago judiuen erreguia *acabatudena* sortiaz?

2.— Ceren guc ecusibaitigu iguzquiaren erquinguiuan bere iza-rra eta singuitra hare adoratiagatic.

3.— Caur entzun cionian erregue Herodesec, turbatucen eta harequin Jerusalen guciau.

4.— Eta ssuntatanciolaric sacerdotien principale guciuac eta irico eracuszale edo escribaiuac, galteguiten zabein nonbiarcion sortu Cristoa edo Mesiasa.

5.— Zoini hec erresponditucein: Judaco Belenen: ceren cola es-cribitubaicion Profetac.

6.— Eta zu, Belen Judaco lurra, ezra Judaco Ciudadade principa-len artian ciertoqui menorena, cerengatic zutaric tzu nonti erquin-biar baitu caudillo gobernaturbiardiona Israeleco ene iria.

7.— Gunian Herodesec deitanziolaric *lagunguaric bague* ma-guac, ssaquincion cuidamenturequi beretaric tempra zointan izarra aparecitutzabein.

8.— Eta encaminatanztiolaric Belenera, erranzabein: fan eta in-formaztei puntualgui aguitandenaz aur conengainian; eta erdenez gueroz abiso emonaztaceid, ni ere fannein eta adoratza dadan.

9.— Caur entzun baicoz erreguari, partitzren: eta nonta izar ecusiceina iguzquiaren erquinguiuan, faitencen beren antzinian, ba-ratucen artio eltiari aurra zagon lequiuaren aurguiara.

10.— Izarraren ecustiari, anichqui regocijatuzren.

11.— Eta etsian sartian, erdencein aurra Maria bere amareguin: eta postratantrelaric adoratzabein; eta iriquiric bere cofriac ofrexituzabein ure, incensu eta mirrazco presentiac.

12.— Eta erreccibitu baicoz lotan abisobat *ceuritic* ezledilein (edo ezitian) buelta Herodesengana, bueltatuzren bere erriara berce bidebataric.

13.— Hurac partituz geroz, Geinaren aingurubat aparecitucitzaun ametstan Joseri erraitanzaularic: ssaguitzte, arzazu aurra eta bere ama, eta iies edo ezcapazte Egiptora, eta egonzte can nic abisaztudanartio; ceren Erodesec chercatenbaitu aurra ilaraztaco.

14.— Ssaguitancelaric José, artución aurra eta bere ama gayaz, eta erratiratucen Egiptora.

15.— Non egonbaicen, Herodes ilcen bitartio; zointaz guisaz cumplitucen Geinac erranciona Profetaren mintzoz: Nic deitunion Egiptotic ene semia.

16.— Bitartio Herodesec, ecustancelaric burlatruc maguenganic irritatucen sobranio, eta ordenu emoncion iltaco, Belenen eta bere unguru guziuan aur zauden guziuac, bi urtetaric apal, según tempa ssaguinciona maguen ganic, zointan *aparecitucitzahein izarra*.

17.— Gunian ecusicen cumplitruc erranciona antzinetic profeta Jeremiasec erranez:

18.— *Ramaradraino ere* entzunzren mintzuac, anich nessar eta irago; *da* Raquel nessar eguiten baitu bere semengatic, nai izanbague consolatruc, ceren ezbaidra bici, edo ezbaitra bici.

19.— Herodesen muertia aguituz bertan, Ginaren aingurubat aparecitucen lotan Joseri Egipton erraitenzaularic:

20.— Ssaguitzte eta arzazu aurra eta bere ama, fanzte Israeleco lurriara, ceren ilbaitrassa maquinatanceinec aurraren viciaren contra.

21.— Ssaguitian José artución aurra eta bere ama, eta ssincen Israeleco lurriara.

22.— Baya entzutian Arquelaoc manatunciola Judean, lotsatucen cara faitra; eta abisatruc ametstan, erretiratucen Galileaco lurriara.

23.— Eta ssincen bici izaitra ciudadate batian deistanbaicen Nazaret, cumplitancelaric guisa contan Profeten errana, Ecunendu icena Nazareno, edo izandena deitruc Nazareno.

IRURGARNEN CAPITULUA

Juan precursorac predicatandu penitencia etabatissatan. Jesusec nai ecountucion izan batissatruc Juanenganic; eta gunian emoitanda izaguntra de la Jangueicaren seme unigenitia.

1.— Tempra cartan Juan Bautista eitzicen ecustra predicanan judeaco desiertuan.

2.— Eta erraiten: eguinuncei penitencia, cerenabaño baitago ceurietao reinua.

3.— Caurda zointai errainbaicen Profeta Isaiasen medioz: da desiertuan clamatandionaren mintzua *erraiten*: preparazacei Geinaren bidia: eguindizacei ssussen bere sendac.

4.— Eragutanción Juanec beztido bat camellozco biloz eta larruzco correa bat cinturara, eta bere bazcaria cen langosta eta mendico ezti.

5.— Zuatzan bada haren erdeitra guentiac Jerusalen eta Judea guzutic eta Jordaneco erribra guzutic.

6.— Eta errecibitancein haren ganic batissua Jordanian, confesatanzeilaric berenbecatiuac.

7.— Baya nola ecustanbaición ssitan haren batissuara fariseo eta saduceuetaric anich, erranzabein: O biborazco casta *ñorc erautsidacei ez baicic apariencieguin ezcapazaiztequiela amenazatan daicein iratic?*

8.— Eguinzacei bada penitencizco frutu dinoac.

9.— Eta eiztei erraitiaz ssenbaitan: Abraan aitataco dacagu; ceren nic erraitendaiceid poderoso de la Jangueicua eguiteco arricuec beretaric sortian Abraani seme.

10.— Beirazacei asscora izariric degola ssa arbolien izorroara eta arbole oro eragutan eztion frutu on, izanenda ebaquiric eta sua-
ra egochiric.

11.— Nic eguiaz batissatandaiceid urequin mobiaraztaco penitenciara; baya eneatzian ssinbiardiona da ni-bino poderosoao; eta ni eztare di no eznaz harierameiteco sandaliac: hora da batissatu-
biardaiceinac Espiritu Saintuan eta suan.

12.— Arc daca bere esquielan sardia, eta saintendu ecin obequi
bere llarnia; eta bere gariasartendu graneruan; bayaautzac errerentu
il ezdeitegun subatian.

13.— Tempra cuetan ssincen Jesus Galileatic Jordaniara Juanen cherca arenganic batissatruc izaiteco.

14.— Baya Juan errestitan cen cartra, erraitenciaric: nic biardiez izan batissatruc zore ganic, eta zu ssitanzra enegana!

15.— Zoini erresponditución Jesusec erraiten: eitznazazu eguitraorai, ceren cola combenibaita gue cumplitzagun justicia guciua. Gunian Juanec condescenditucion arequin.

16.— Batissatubaicoz bada Jesus, uretic erquincen instantian, ceuriac iriquizitzazcan eta ecusicion ssaistan Jangueicoaren Espiritua ussuaren figuran, eta erreposatan eren gainiaiin.

17.— Eta senditucen ceuritic mintzobat erraitan: caurda enese-memaitia, zointan baitacad isariricene complacimientu guciua.

LAURGARNEN CAPITULUA

Jesucristoren barura eta tentacinia. Bueltatanda Galileara eta isartandu bere bicitia Cafarnaunen: Astandu bere predicacionia, eta astanda discipulo biltra edo ssuntatra, eta da guente anichez ssarre-quitruc.

1.— Ocasione cartan Jesus izancen erámanic Espíritu saintiuaren ganic desiertuera cen izanledin tentatruc diabruarenganic.

2.— Eta berroguei egun berroguei gayequin barurtuz gueroz ecuncion gose.

3.— Gunian abañatancelaric tentazalia erranzaun: Jangueicuaren seme bazra, erranzazu arri coric bueltatiala oguitan.

4.— Baya Jesusec erresondituzaun: escribitruc dioc: ez solooguiz bicida guizona, beicic ele edo disposizione Jangueicuaren autic er-guitanden oroz.

5.— Contazgueroz diabruac eramancitzaun *Jerusaleneco* ciudade saintiuara, eta isaricitzaun temploaren goyenian.

6.— Eta erranzaun: Jangueicuaren semia bazra, egosszte que mentic apal; bada escribitruc diozu: Encomendatudaizula bereain gurier, ceinec artendaicei bere esquiuetaco *palmetan* zore zancua eztein tropeza arri zomaiten contra.

7.— Jesusec replicatuzaun: baitare escribitruc dioc: Etsu tentaten zore Jangueico Geinari.

8.— Orainore iganci tzaun diabruac mendi gora batra, eta monstratuzaun mendiaren reino guciuac, eta beren gloria edo andigua.

9.— Eta erranzaun: gaiza cuec gucirac emonendaizud postratancrarlic ene antzinian, adoratanbainuzu.

10.— Errespondituau gunian Jesusec: Apartadi cortic Satanas ceren baitago esribitruc: Adoratentzu zore Jangueico Geina, eta ari solo cerbuchatentzu.

11.— Correquin eitzucitaun diabruac, eta nonta abañatuzrren ainguriuac eta cerbuchatan zabein.

12.— Entzutian gero Jesusec Juan encarcelatruc izanzrela, erre-tiratucen Galileara.

13.— Eta eitztanciolaric Nazareneco Ciudadia, fancen egoitiaz Cafarnaunera, ichasoco ciudadet, Zabulonen eta Neftaliren mugante edo altacan.

14.— Cola eltucen cumplitra Isaiasec errancia.

15.— Zabulonen erria eta Neftaliren erria nontic faiten baita *Tiberiadeseco* ichasuara Jordanen berce altiara, Gentilen Galilea.

16.— Ulunguan eroriric zagon cone, ecusi du argui andibatiri argui ssindena arquitra zaudener muertiaren itzaletaco errian.

17.— Gunian gueroz asicen Jesus predicatan eta erraiten: eguin-zacei penitencia, ceren abano baitago ceurien reinua.

18.— Erabiltancelaric egunbatez Jesus Galileaco ichasuaren erri-bran, ecusicion bi anasse, Simon, guero deitucena Pedro eta Andrés bere anassa egoisstan erredia ichason, zren bada arrantzari:

19.— Eta errancitzabein: ssarrequiztei niri, eta nic eguinendiez elztein izaitra guizonen arrantzari.

20.— Instantian biac, eitziric errediac, ssarerquitutzazcan.

21.— Igartancelaric antzinarago, ecusicion berce bi anasse Santiago Zebedeoren seme eta Juan bere anassa, bere erredien compo-sitan barcabatian bere aita Zebedeorequin, eta deituztion.

22.— Urac guisaberian, eitziric errediaec, puntualqui ssarrequi-tucizazcan.

23.— Eta faitencen Jesus buelta emoitan Galilea guzutic, era-custan beren Sinaguetan eta predicatan Ebangeliua *edoceurico* rei-nuaren *berri ona*, eta sontoteen zoin naiden dolencia eta erigua iri-cuer.

24.— Correquin laster eguincion aren famac siria guzutic eta presentatan zabein eriguarequin zauden guciua, eta quessuzrenac gach ditrente eta dolore *biziz*, endemoniatiuac, lunaticuac, perle-ticatiuac; eta santotanztion.

25.— Eta seguitancizazcan guente multitud andibat Galilea eta Decapolico, eta Gerusalen, eta Judeaco, eta Jordanaren berce alteco.

BORZGARNEN CAPITULUA

*Jesucristore sermona mendian astanda zortzi bienabenturancequin.
Erraitendu ezcela ssin leguiaren deseguitra, veicic cumplitra & &.*

- 1.— Baya ecustian Jesusec guente multitud caur guciua, iganceti mendibatra non ssaseriric abañatucitzazcan bere discipiliuac.
- 2.— Eta iriguitan bereau *dibinua* adotrinatanztion erraiten.
- 3.— Bienabenturatu espirituzco pobriac ceren entaco baita ceurico reinua.
- 4.— Bienabenturatu dulciac *eta umildiac*, ceren hec gozaten bai-tei lurra.
- 5.— Bienabenturatu nessar eguitan deinac, ceren hec consolatruc izanen baitra.
- 6.— Bienabenturatu gose eta egarri deinec justiciaz *edo justo eta saintu izaitiaz*, ceren hec izanen baitra aseric.
- 7.— Bienabenturatu misericordiosuac, ceren hec alcanzatenbaitei misericordia.
- 8.— Bienabenturatu biotza argui deinec, ceren hec Jangueicua ecusen baitei.
- 9.— Bienabenturatu baquia procuratandeinac, ceren hec izanen-baitra deitruc Jangueicuaren seme.
- 10.— Bienabenturatu persecucione sufritandeinec justiciaren gatic *edo justo izaitiagatic*, ceren hentaco baita ceurien reinua.
- 11.— Dichoso izanenzrei guizonec ene causaz maledicazaicintze-nian eta perseguizaicintzeinian, eta errandazaceinian, gassqui guisa guzuz ssen contra.
- 12.— Alegraztei *gunian* eta erregocijaztei, ceren baita anich andi ceurian esperatandaicein recompensa. Guisaberian perseguitucita-bein profeta ssen antzinetic izanzrener.
- 13.— Ssec zrei lurreco gatza. Eta gatza eguitanbada gueza ¿ce-requin bueltatencitzaud saboria? Deustaco cerbuchatan ezdu bai-tic arrojatruc izaiteco eta guente zanco petan erabiltaco.
- 14.— Ssec zrei mundiaren arguia. Ezdeiteque alcha ciudadebat edificatruc mendibaten gainian.
- 15.— Yssiquiere ezdeiteque arguia izartaco almute baten pean baicic candelero baten gainian argitzan etseco guciuer.
- 16.— Cola relucitzassen arguiac guizonen antzinian, ecusdoguein

guisa ssen obra onac eta glorificatzein ssen Aita ceurietan dago-nari edo dagona.

17.— Etzacei pensa ni ssinnazala leguiaren *dotrina* desegitira ez Profetena ere: ez naz ssin aren destruitra, baicic bere cumplimentua ren emoitra.

18.— Ceren egquia guciuarequin errait endaiceid, falt a t endela ceuria heta lurra leineei baradein cumplitubague perfectoqui leguiian contenitanden gucua, aiqueta jotabat cain bacoch edo aren puntubatere.

19.— Eta cola norbaitec quebrantabaleza edo autsbaleza mandamentu cuetaric bat chiquerrago urdu izanic ere eta eracustbaleza guizoner eguitra gaiza bera, izamenda ecunic chiquerrena *edo er deustaco* ceurien reinuan; baya guardatan eta eracustantionac, cori izanenda ecunic anditaco ceurien reinuan.

20.— Ceren nic erraitandaiceid ezbada ssen justicia escribauena eta fariseuena beino osoago eta cumplitrucago, ezrei sarten ceurien reinuan.

21.— Entzunic zaudei errancela ssen mayorer: Etzei ilen; eta ilezanac izanendela condenatruc ilic izaitra juiciuan.

22.— Nic erraitandaiceid obro: nornaidenec artzan ojadiza bere anassari, meressitendu juezac condenada zan. Eta deilazanac *Raca* meressitendu condenadazan conciliac. *Baya* deilazanac *fatuo* izanenda iburnico suaren reo edo meressidun.

23.— Correngatic, zore oberta altarian presentatuntzun tem-pran, can guartanbazra zore anassac diola zomait quessu zore contra.

24.— Eitzazu canberian zore oberta altariaren antzinian eta fanzte leinic reconciliatra zore anassarequin eta guero utzulenzra presentatra zore oberta.

25.— Componizte bertan zore contrariuarequin, zaudelaric bitar-tio orainore arequin bidian; ezdeila izan izardazaizula juezaren es-quieten, eta juezac entregadazaizula nucinarenetan eta sardazai-cein carcelian.

26.— Aseguratandaiz ciertoqui ezrela cantic erquinen azquen marabidibia pecatzazun bitartic.

27.— Entzunzei errancela ssen mayorer.

28.— Etzu eguiten adulterioric. Nic erraintandaiceid obro: zo-naidenec miralezan emaztebatu deseo gasstorequin aren beira ero-ricen adulteriotan bere biotzian.

29.— Eta zore escoineco beguia bada zoretaco ocasione bat be-catiuau erortaco, erquinzazu eta arrojazazu zutaric campo; bada

obe dazaizu galtia mienbruetaric bat, ecic ez zore corpiz gucua fandei iburniara.

30.— Eta core escoineco esquiaua bal dimada escandaloemoitenidaizuna edo incitatan becatiuan erortra, ebaquizazu eta egochzazu zutaric urrin; bada obe dazaizu galdein zore miembruetaric bat ecic ez fandein iburniara zore corpiz gucua.

31.— Errancen: Nornaidenec despedilezan bere emaztia emonda zaula beresstarzunaren cartilla;

32.— Baya nic erraitendaiceid, nordaidenec despedilezan bere emaztia, ez izaitian adulterioaren causaz, peligrotan izartandio adúltera izaitaco; eta bordalcedina matrimoniotic emazte egochiric izandenarequin, adúltero de la guisaberian.

33.— Entzunic zaudeiere errancela ssen mayorer: Etzu juramento falsuric eguienen, leinaz obe cumplitendutzu juramento eguinac Geinari.

34.— Nic erraitendaiceid obro: ñolare edo deus guisaraz etzaceila juramentoric eguien *motivo justoric bague*, ez ceuriaz ere ceren baita Jangueicuaren tronua.

35.— Ez ere lurraz, da hada bere zancopetaco asientua ez Gerusalenezere, ceren baita Erregue andiaren ciudadadia edo cortia.

36.— Eztare etzei juramentoric eguien ssaurien buriuac, bada eztago ssaurien esquian eguitia ssuri edo belch bilo bacoch bat.

37.— Izandeila bada ssen mintzamoldia: bai, bai: edo ez, ez; ceren contaric igartandena principio edo izorro gasstotaric ssitenda.

38.— Entzuntzei errancela: beguiz begui, ortzez ortz.

39.— Nic baya erraitendaiceid, etzaceila agrabiuardi eguiin erre-sistimentu, leinaz norbaitec erachiquitanbadaizu escoineco masse lan, utzuldazazu bereia ere.

40.— Eta naidaizunari isari pleitu guendazaizun tunica emondazazu ere capa.

41.— Eta eramanaz tandaizunari borecha cargatruc milla urratsez, fanzte arequin berce millaz.

42.— Escatandaizunari, emondazazu; eta ezadazazu uca beguitartia pretenditandionari zutaric zomait prestamu.

43.— Entzuntzei erranic izanca: amatentzu zore projimua, eta (añaditudecei gassqui) ecuncutzu odio zure enemiguari.

44.— Nic erraitendaiceid obro: maita ditzacei ssen enemiguac: eguiñzacei onqui aburritandaiceiner, eta oracione eguiñzacei: sser perseguitan eta caluniatandaiceiner.

45.— Izanztein seme ssen aita ceurian dagonaren *imitazaleac*,

nore eguitanbaitu sor dein bere iguzquia onen eta gasstuen gainian, eta euri eguintzan justo eta becatarien aurquian.

46.— Ceren ebatzei ecutan amorio baicic amatandaiceiner *¿cer premin ecunbiartzei?* Ezdeya cola eguiten publicanuec ere.

47.— Eta ebatzei salutatan berceri baicic ssaurien anasser, cer ecustia du correc. Ezdeya *ote* eguitanere caur paganuec.

48.— Izanztei bada ssec perfecto, ssen Aita celestial denbicala perfecto, imitaauceilaric altzein guciaua.

SEIGARNEN CAPITULUA

Proseguitanda Jesus eracustan: eta tratatandu limosnaz, oracioniaiz, baruraz: erraitandu ezdigula ontarzun ssuntatubiar mundu contaco baicic ceurico; gore intencionia biardiola izan ssussen; ezdeitequaleta cerbucha Jangueicuari eta mundiari; eta ecustra emotandu confianza biardiguna ecun Probidencia dibinuan.

1.— Guardaztei onqui eguitiaz ssen obra onac guizonen antzian ecusdazaicein finarequin, berce guisaz etzei errecibiten ssen Aita ceurietan dagonaren ganic bere premiua.

2.— Eta cola emotantzunian limosna etzazula nay publica trompeta sonuz, ipocritec eguitendein bicala sinagoguetan eta carriquetan *edo plaztetan* izantian onratruc guizonen ganic. Eguiaz erraitendaiceid errecibituceila ssa bere recompensa edo paguiua.

3.— Baya zuc limosna emotantziuanian, eguinazazu zore ezquerreco esquiuc etzan guart emon zore escoinac eguitandiona.

4.— Zore limosna baradein alchatruc; eta zore Aitac ecustan baitu alchatruc ago dagona recompensatendaizu *publicuan*.

5.— Guisaberian errezzatanteinian etzei izan biar ipocriten guisa, ceinec propositoz izartanbaidra oracione eguitra chutiric sinagoguetan eta carriquetan esquinetan izantian ecusiric guizonen ganic. Eguiaz erraitendaiceid errecibituceila ssa beren paguiua.

6.— Zuc, al rebes, errezzatubiar cinoquenian, sarzte ciauren apsentuan, eta borta cerratruc oracione eguinazazu secretuan zore Aitari, eta zore Aitac ecustanbaitu secretuena izanic ere, premiendaizu *publicuan edo guciuen antzinian*.

7.— Oracionian etzacei gogo ecun anich ssardoquitaco, gentilec eguitendein bicala, zoiner urdutan baizabei entzunic izanbiardeila ele anichen indarrez.

- 8.— Ezdit zacei nay bada imit a: ceren onqui bait aqui ssen Ait ac cer biar tzein lein ecic escadaz ucein.
- 9.— Checei bada nola biartzein errezatu: Aita goria ceurietan zaudena; satificatruc izandeila zore icena.
- 10.— Ssindeila zore reinua; eguindeila zore borontatia, nola ceurian, cala ere, lurrian.
- 11.— Gore egunorozco ogua emondazaiguzu egun.
- 12.— Eta parcadaizquiguzu gore zorrac, guc parcatandigun bicala guri zordaicuner.
- 13.— Eta ezguitzazu eitz tentacionian erortra; baicic libraguitzazu gachetic. Amen.
- 14.— Ceren parcatan batzei guizoner ofensac ssen contra eguitanteinac, baitare ssen Aitac ceurietan dagonac parcatendaicei ssaurien becatiuac.
- 15.— Baya ssec ezbaztei parcatan guizoner, eztare ssen Aitac ezdaicei parcaten becatiuac.
- 16.— Barurtantzeinian, ecitei isar beltzuri, ipocriten bicala, ceinec desfiguratan baitei beren beguitartia emoiteco izaguntra guizoner barurtandeila. Eguiaz erraitendaiceid erreccibituceila beren recompensa.
- 17.— Zuc, bere guisaz barurtantzinanian compoinzazu zore buria eta ecuz onqui zore beguitartia.
- 18.— Etzein guizonec izagun barurtantzinala, baicic cairisolo zore Aitac presente baitago quiza guciuer orainore alchatrucago daudener; eta zore Aitac ecustan baitu igartandena secretuan emonndaizu correngatic recompensa.
- 19.— Nai etzacei bil ontarzun ssentaco lurrian, non consumitan baiditu erroñac eta polillac, non eta ladronec descubritan eta ebasstan baiditei.
- 20.— Ssunt azacei leinaz bai ssent aco ont arzun ceurian, non ezbaita erroña ez eta polilla consumidoz queinic, eztare ladron descabri eta ebats dozqueinic.
- 21.— Ceren zore tesorua dagon lequian, can diozu ere zore biotza.
- 22.— Zore corpizaren arguia zore bequiac dutzu, zore beguia izanbaledi sencillo edo *egonbaledi ssaisi*, zore corpiz gucia ego-nentzu arguitruc.
- 23.— Baya malicioso edo gassqui balimadacazu zore beguia, zore corpiz gucia ego-nentzu uluntruc. Ceren ulungua balimada zutan biardiona izanargui; julongua berac cer andi izanendra!

24.— Norc ere ezdoque cerbutza bi nausiri; ceren edo ecunendu aburrimentu batari eta amorio berciari edo sugetatan bada leinari, miraitendu ceñurequin bigarnari. Ezdoquecei cerbucha Jangueicuari eta ontarzuner.

25.— Conen arrazoinan erraitendaiceid: ecizteila acongoja cer ssan erdeiteco cuidaduaz mantenataco ssen bicia; edo nontic erquinentzein beztido ssen corpizaren estaltaco; cer ¿ezdia biciac edo arimac obro balio ecic alimentiuac eta corpizac obro ecic beztidiuac?

26.— Checey ceurico choriec nola erdein eritan, ez ere eguitatan, ez graneroric ere ecutan, eta nola mantenatantion ssen Aitac ceurian dagonac. ¿Etzeia bada ssec enbeino anich obro balio comparacioneric bague?

27.— Eta ¿nor ssetaric anich discurrenturen indarrez aña-didoque codo bat bere luceguari?

28.— Eta beztidiuaz dela casoz ¿cer propositoz ssen inquietatia? checei alurreco liliac nola anditandren eta loratan. Ezdecei ec lanatan, ez urutan ere.

29.— Calaric ere nic erraitendaiceid ez Salomon ere bere andigua guciuaaren erdian beztitucela cain primorose qui nola lili cue-taric bat.

30.— Bada Jangueicuac cola beztitan badu egun alurrian lora tan eta biar labiara egochtanden belar bati ¿zomat obro sser, fede chiquitaco guizonac?

31.— Cola bada eztei fan erranez acongojatruc ¿Non erdenendiguer ssan eta edan? ¿Non cerequin behti erdenendigu?

32.— Eguitandein guisa paganuec erabiltan baitra ansiarequin gaiza cuen gucion atzian; bada onqui daqui ssen Aitac etaz nes-tate tzeina.

33.— Azquenic, chercazacei leinic Jangueicuaren reinua eta bere justicia, eta bere gaiza guciua ac emonendazquicei añadimentuz.

34.— Eciztei bada erabil congojatruc biarco egunaz; ceren biarco egunac asqui cuidado eraguendu berarequin, edo berartaz; asqui izandaquiola egun bapanari bere afan *edo tarea* propiuia.

ZAZPIGERNEN CAPITULUA

Acabatandu Jesusec bere sermon admirablia: albertitandu ezdela proginuaz gassqui pensatubiar; esta ezdrela emonbiar indinuer gaiza saintiuac: fabricatandu mintzatanda oraciorianen eta aren persebe-

ranciare gainian; caritatiaren gainian: zoin ersi denaz ceurico bidia: Profeta falsuetaz: frutuetaz izaguntandela arbolia; Eta etse edo edificio fundatruc izandenaz peñaren gainian edo anriaren ginian.

- 1.— Nay etzacei juzga, nayebatrei izan juzgatruc.
- 2.— Ceren juzgacinecein juicio bararequin, biartzei izan juzgatruc; eta neurricinecein neurri berarequin izanenzrei ssec neurtruc.
- 3.— Baya zu? cerbeguitarterequi izartanzra beiratra nata zore anassaren beguijan, eta etzu guart emoitan biga dagonari ciaurnaren barnian?
- 4.— Edo ¿nola erraitentzu zore anassari: eitzazu nic erquintzadannautzco cori zore beguitic ciaurec tzularic bigabat ciauren beguijan?
- 5.— Ipocrita, erquinzazu leinic biga ciaren beguitic, eta gunian ecusentzu nola biartzuan erquin nata zore anassaren beguitic.
- 6.— Etzacei emon chacurrer gaiza saintiac ez ere egoch ssaurien perlac echerrier; ezdeila izan chiscaditzein berenzancuez, eta bueltaditian ssaurien contra eta zatizczastein.
- 7.— Escaz tei, eta emonen daicei: chercazacei, eta erdenentzei: bortan deizacei, eta iriquirendaicei.
- 8.— Ceren escatanden oroc, errebitandu, eta chercatandionac, erdeitandu; eta deitandionari, iriqui renzau.
- 9.— ¿Badagia ote ssen artian norbait, zoini escatanzaularic ogui bere seme batec, emondazan arribat?
- 10.— edo escatanbazau arrainbat, emondazan suguebat.
- 11.— Bada ssec izaitian gaissto *edo inclinacione* gasstotaco, balmadaquicei emon gaiza on ssaurien semer ¿zomatobro ssen Aita celestialec emonendu gaiza onac escatan dazquionari?
- 12.— Eta cola eguinuncei ssec berce guzonequin deseantantein guciua ec eguintzein ssequin; ceren caur baita leguiac eta profetec errandein *suma edo llaburiua*.
- 13.— Sarztei borta ersitic, ceren borta eta bide zabalac dra eramaitendeinac perdicioniara, eta anich dra sartandrenac bide contraric.
- 14.— ¡Oh cer ersi da borta eta cer mear senda edo bidia eramaitandionac acaba ezdeitequen biciara! ¡eta cer tsiqui dra erequin causitandeinec.
- 15.— Guardaztei profeta falsuetaz, zein ssitenbaitra ssen gana beztitruc ardi larruz; baya barnetic dra otso deborazale banac.
- 16.— Beren frutu *edo obretaz* izaguntenditzei ¿Biltandreya ote mats arbole ñarduretaric, edo figo ssargatzetaric?

17.— Cola da nola arbole on oroc eragutandion frutu onac, eta arbole gassto guciua, frutu gasstuac.

18.— Arbole onbatec ezdoque emon frutu gasstoric, eztare arbole gasto batec frutu onic.

19.— Arbole oro eragutan ezdionaz frutu on, izanenda ebaquic eta suara egochiric.

20.— Beren frutiuetaz bada izagundozquecei.

21.— Ez niri erraitendion oroc ¡Oh Geina, Geina! Sartenda correngatic ceurietaco reinuan: beicic eguitendionac ene Aita ceurian dagonaren borontatia, cori da sartendena ceurien reinuan.

22.— Anichec erranendaitei-juicioco egun cartan ¡Geina, Geina! ¿Ezdigua bada gue profetizatu zore icenian, eta egochi zore icenian demoniuac, eta eguin anich milagro zore icenian?

23.— Baya gunian nic erranendabeid: secula ere ezdaiceid izaguntu enetaco edo naurnac: apartaztei nitaric, gasstotarzunaren obrazaliac.

24.— Correngatic nornaidenec entzutendion eta cumplitan ene dotrina cuec, izanenda iduri edo semejatruc guizon cuerdo bati, zoinec eguin baicion bere etsia arrizco cimentu gainian.

25.— eta erorizren euriac, eta ugaltiac erquinzren marguinetaic, eta erabili zren airiac, eta emoncein indarrequin calaco etsiarren contra; baya ecen izan deseguinic ceren baizagon eguinic edo fundatruc arrizco cimentu gainian.

26.— Baya nornaidenec entzutandion eta ez obraz izartan dotrina emoitentuan cuec, izanenda semejatruc edo iduri guizon ero fabricatucion bati bere etsia anria gainian.

27.— eta erorizren euriac, eta ssinzren ugaltetaco erriadac, eta erabilizren edo butz eguncein airec, eta emoncein indarrequin etse caren contra, zoin eroricen, eta aren deseguingua izancen andi.

28.— Azquenic acabatubaicoz Jesussec discurrimentu caur, entzutan zabein iriec, edo iri entzutanzabeinec, ecein acabatan admiratiaz aren dotrina.

29.— Ceren aren er eracustaco moldia cen autoritade soberano batetquin, eta ez beren escribaiu eta fariseuec eracustancein guisa.

ZORTZIGARNEN CAPITULUA

Jesusec sontotandu leproso bati, einturiaren mitil cerbuchariari, eta San Pedroren amaguiarrebari: sosegatandu ichasua zagolaric alborotatruc; eta sontotandu diabruz beteac, edo endemoniatuac.

- 1.— Ssachiz baicoz jesus menditic, fancitzaun ssarequituz guente multitud andoibat.
- 2.— Contan, eltian arengana leprosobat adoratanzaun erraiten: Geina, zuc neibatzu, saisinindoquezu.
- 3.— Eta Jesusec zabaltan edo edatanciolaric esquia, tocatazaun, erraiten: Naidiez: Barazte ssain. Eta instantian baratucen sontotruc bere lepratic.
- 4.— Eta Jesusec erranzaun: Chezu etzazule erran norire; baya fanzte presentazte sacerdotiaren edo apezarengana, eta ofrecizazu emontarzun Moisesec manatuchona, cerbucha edo izandazaun testimoniotan.
- 5.— Eta sartancelaric Cafarnaunen, erquincitzaun encontriuara centuriaco oficialebat, eta otoy eguitanzaun, erraiten.
- 6.— Geina, ene mitil cerbucharibat dago etzinic etsen, perleti-catruc, eta padecitandu anissco.
- 7.— Erraitendu Jesusec: Ni fanennuzu eta sontoten dauz.
- 8.— Eta replicatucion centuriaco oficialiac: Cina, ni enaz dino edo meressizale ori sardein ene etsen; baya manabeza orren itzaz eta baratenda ene cercbzuzari mitila sontotruc.
- 9.— Bada oraino ñaurec, ezbainaz beicic guizon bat izariric ber-zen meniara, nola baitur soldadu ene ordeniara, erraiten dur bati: fanadi, eta ura faitenda; eta berciari: onai, edo ssinadi, eta ssitenda; eta ene mitil cerbucharriari: eguinzac caur eta guitendu.
- 10.— Caur entzutian Jesusec, mostratucion admiracione andi-bat eta errancion ssarrequitancitzauner: eguiaz erraitendaiceid, eztare Israelen erdianere erden duala fedebat cain andi.
- 11.— Cola nic declaratandaiceid ssinendrela gentiletaric anich iguzquiaren erquingutic eta sargutic, eta egonendrela mayan Abraan, Isac eta Jacobequin ceurietaco reinuan.
- 12.— reinoco semiac (Judiua) izanendren bitartio edo tempra berian egochiric campo ulunguetra: can izanenda nessarra eta ortze garrasca egutia.
- 13.— Gero errancion Jesusec centuriaco oficialori: ortzu edo fanzte eta aguida quizula ssinetsitzuan bicala; eta ordu cartan erian baratucen sontotruc mitil cerbucharria.
- 14.— Fan izuncelaric guero Jesus Pedroren etsera, ecusicion conen amaguarreba oyan calenturarequin.
- 15.— Eta tocatazaularic esquia, guentucitzaun calentura; co-rrequin ssaguicen bertan oitic, eta isaricen et cerbuchatra.
- 16.— Arrastria eltu izabaicoz eragucitzabein anich espirituequin

zaudenic, eta bere elia edo itzarequin egochtanztion espiritu gass-tuac, eta sontotuztion quessatanzren guciucac.

17.— Cumplitancelaric correquin errancia antzinetic profeta Isaiasec erraiten: Bera cargatuda gore erigüetaz, eta artudu bera-ren gain gore eriguac.

18.— Ecustancelaric Jesus *egunbatez* guente anicheguin bere un-guriuan, disponitucion igartia Genezaretoco laguaren berce alteco erribrara.

19.— Eta abañatancitzaularic escribairi edo eracuszale bat, erranzan Maistrua ni ssarreQui-ten naizu nore naiden fancitian.

20.— Eta Jesusec errespondituzaun: Assariec dei camia eta ceu-rico choriec abia; baya guizonaren Semiac ezdu ceren gainian erre-posa buriua.

21.— Bere discipulhetaric bercebatec erranzaun: Gina, permeti-naztazu lein ecic ssarrequilazaizun, fannein ene Aitaren edo ñore Aitaren orirztra.

22.— Baya Jesusec errespondituzaun: Sarrequinaizte zu, eta eitzazu ilec, *edo guente ezdeinec fediaren bicia* onrtzein beren illac.

23.— Sartucen bada barca batian acompañatruc bere discipu-lue taz.

24.— Eta nonta azcatucen ichasuan tempestade bat cain andi, estaltan beicen oladec barca: baya Jesus zagon lo eguiten.

25.— Eta abañatanzrelaric arengana bere discipuluac igatzarric zabein, erraiten: Gina, salbaguitzazu, galtruc baigra.

26.— Erraitendabei Jesusec ¿Certaz lotsatanzrei, o fede chiqui-taco guizonac? Gunian chuti izariric manatacion aicer ta ichasoari aplacalitiada—eta seguitucen soseguandibat.

27.— Zointaz aturditruc can zauden guciucac erraitencein altar ¿nor da caur zoini airec eta ichasua obedecitan baitabe?

28.— Barco tic erquiniz gueroz laguaren berce erribran gerase-unen errian fanzren ssussen aren gana erquitian sepultura zaude-netaric, bi endemoniatu cain furioso, ezbaicen ñorere atrebitan igartra bide cartaric.

29.— Eta bertan aszren irago eguiten, erranez: ¿Cer ecusteco digu guc zorequin, o Jesus Janguecuaren Semia? ¿Ssinzreya cona guri atormenta tiagatic tempra bague?

30.— Zagon ez urrin cantic cherri saldo andibat alatan.

31.— Eta demoniuec otoy eguitanzabein guisa contain: Egoch-tambagutzu quementic, oilguizazu cherri saldo contra.

32.— Eta are erranzabein: Ortzcei. Eta urac erquinzrelaric sartu

zren cherrieta; etanonta saldo guciua laster eguincion furia andirequin brinco edo zauci eguitra turrunpero bataric ichasuara, eta baratuzren itotruc uretan.

33.— Cherrizainac ezcapa edo merituzren, eta eltubaicoz ciudadiara, contatucein aguitanceen guciua eta particularqui aguitiuia endemoniatiuequin.

34.— Puntuberian ciudadade guciua erquincent Jesus en cherca: eta ari ecustian, otoi eguinazabein erretiraledin beren erritic.

BEDRATZUGERNEN CAPITULUA

Jesusec confirmatandu bere dotrina milagro berrirequin. Perleticatu baten sontotiuia edo sontotarzuna: San Mateoren bocacionia: Libratandu emaztebat odol flujo edo odol usirtiua bataric erresucitatandu Jayroren alaba: Sontotatandu bi utsieta endemoniatu muku bat Fari-seuen blasfemiac.

1.— Eta barcuara igaitian igaricen lagunaren berce altiara eta ssincen bere egotiazco ciudadiara edo *Cafarnaunera*.

2.— Noizta presentatuzabein perleticatu bat etzinic oibatian. Eta ecustian Jesusec bere edo aren fedia, erranzaun tullitiuari: Ecunzazu confianza ene semia, ceren parcatruc zaitzu zore becatiuac.

3.— Zoini escribano edo eracuszale banec errancein bertan berentaco: Conec blasfemia tandu.

4.— Baya Jesusec ecustian beren pensamentiuac, errancion: ¿Ceren pensantzei gassqui ssaurien biotzetan?

5.— ¿Cergaiza da facilago erraita ciauren becatiuac parcatanzaitzu, edo erraitia ssagui eta erabiltzte?

6.— Bada ssaquinzacein guizonaren Semiac diola lurrian potestade becatu parcataco, azcazte edo ssaguitze (errancion tempra berian perleticatiuari), arzazu ciauren oya eta fanzte zore etsera.

7.— Eta ssaguicen eta fan bere etsera.

8.— Zoin ecustian guentec, baratuzren lotsa saintuz beteric; eta emoncean gloria Jangueicuari emonciolacoz colaco potestade guizoner.

9.— Partitucelaric quementic Jesus, ecusicion guizonbat ssaseric alcabalen banco edo may batian, icenez cionac Mateo, eta erranzaun: ssarrequinatzau; eta ura saguitancelaric bertan, seguituci-tzaun.

10.— Eta aguitucen zagolaric Jesus Mateoren etseco mayan, ssinzrela anich publicano eta bici gasstotaco guente izaribaizren mayan bazcalta arequin eta bere discipuluequin.

11.— Eta ari ecustian fariseuec erraitencein bere discipuluer: ¿Nola da ssen Maistruac ssatanbaitu publicano eta becatariequin?

12.— Baya Jesusec caur entzutian, erranzabein: ezdutzu sanuac, beicic eri daudenac dotoriaz nestate deinac.

13.— Fanztei bada icastra cer sinificatandion: Obro estimantan-dur misericordia ecic sacrificiua; ceren becatoriac baitra eta ez justuac zoiner ni ssinbainaz deitra *penitencia* equitra.

14.— Gunian presentatzuren Jesusen gana Juanen discipuluac, eta erranzabein: ¿zoin da motibua ceren guc eta fariseuec barurtandigunian naroqui, ezbaitey barurtan zore discipuluec?

15.— Errespondituzabein Jesusec: ¿Esposuaren adessquidiac era-bildeitequya ote afluxiruc *edo nessargarri*, esposua equin dagon bitartio? Eltenda bay tempora zointan izanenbaizabei guentruc esposua, eta gunian barurtendei.

16.— Norc ere ezdu egosstan tapallubat ossal lodiz beztido ssar-bati: berce guissaz berriguac urartandu ssardunaren parte, eta an-diago eguitenda urratua edo autsduna.

17.— Eztare ezdei egosstan ardaun berria zugui ssarretan; ceren caur eguitenbada lertanda zugua, eta usurtanda ardauna, eta gal-tandra zuguiac edo larriuac. Baya arduen berria egochtandei zugui berrietan, eta cola conserbatanda bata eta bercia.

18.— Conbersacione contan zagon eltucenian guizon principale *edo sinagogaco nausibat*, eta adoratzularic, erranzaun: Gina, ene alaba acabatanda iltiaz; baya ssinzte, izarzazu zore esquiauaren-gainian, eta bicirentzu.

19.— Ssaguitian Jesus faiten citzaun ssarrequituz bere discipuluequin.

20.— Noizta emaztebat, baición amabi urte padecitanciola odol usurtiua bat, ssincen atziritic eta tocatucion aren edo bere bezti-duaren atzecua.

21.— Ceren arec erraitencion berartan: toca aldo quedan beraren edo bere beztidua, ecusenaz sontotruc.

22.— Baya bueltatian Jesus eta mira eguitenzularic erranzaun: Alaba, ecunzazu confianza: zore fediac santotudaizu.

23.— Eguiaz, instante cartaz gueroztic baratucen sontotruc emaz-tia. Ssincelaric Jesus guizon principale caren etseara eta ecustian

flauta *edo lutozco musica* sonazalias eta guentiaren arroitiua, erraitencioan:

24.— Retiraztei, ezdago bada ilic aurra edo nesscassia, beicic loacartruc. Eta artaz burla eguitancein.

25.— Baya egochiric campo guentia, sartucen, escutic artuzaun, eta nesscassia azcatu edo chutitucen.

26.— Eta afamatucen aguitiu erri cartaz guciuaaz.

27.— Partitiari Jesus lecu cartaric seguitucizazcan bi utsi irago eguieten eta erraiten: Dabiden semia, ecunzazu compasione gutaz.

28.— Etsera eltucen bertan edo baicoz, presentatucizazcan utsiac eta Jesusec erranzabein. ¿Ssinetstantzeya nic egundoquedala escalantzein cori? Erraitandabei; Bay Gina. Gunian tocatu zazcabein, beguiac erraiten: nola ssen fedia, cola eguinicizandaquiceila.

30.— Eta iriquiric izancitzabein beguiac. Baya Jesusec amena-zatuztion, edo desafiatuztion erraiten: checei, ñorc ere etzala ssquin.

31.— Ec calaric ere, cantic erquitian publicatucein unguru edo comarca guzutic.

32.— Cuec erquinic, presentatuzabein mutubat endemoniatruc.

33.— Eta egochiric gueroz demoniua, ele errancion edo mintzatu-zen mutiua, eta guentiak betezren admiracionez, eta erraitencein: secula ezda ecusi izan calaco gaiza Israelen.

34.— Fariseuec al rebes edo contrario altetic, erraitencein: demoniuen principalaren artez egochtantu demoniuac.

35.— Eta Jesus faitencen lastercatan ciudade eta iri gueinac edo buelta emoitan ciudade eta iri guciuer, eracustan beren sinago-guetan eta predicatan Jangueicuaren reinuaren Ebangeliua, eta son-totan doloretarzun eta erigua oro.

36.— Eta ecustian guente curac, compadecitancen etaz, ceren baizauden gassqui paratruz eta barriatruc quemen eta can, ardiac artzain bague bicala.

27.— Zointaz gainian errancion bere discipuluer: da eguiazqui anich eguitatako baya eguitariac chiqui.

38.— Otoiczaztei edo otoi escaztei eguitáraco nausiar oiltzala eguitari edo eguitazale bere alurriara.

AMAR GARNEN CAPITULUA

Amabi apostolen misionia: milagro eguiteco potestatia, eta Jesu-sec instruccionem emorzabeinac.

1.— Contaz guero, deituztiolaric bere amabi discipuluac, emonzabein potestate egochteco espiritu ciquinac, eta sontotaco cernaiden guisataco min eta fachac edo eriguac.

2.— Amabien izenac dra cuec: Leina Simón, icen gainez Pedro, eta Andres bere anassa.

3.— Santiago Zebedeoren seme, eta Juan bere anassa.

4.— Felipe eta Bartolome: Tomás eta Mateo publicanua edo arrendazalia: Santiago Alfeoren seme, eta Tadeo: Simon cananeoa; eta Judas Iscariote, saltucitzau bera.

5.— Amabi cuec oiltuztion Jesusec emotanzabeilaric seguitanduen instrucioniac edo icastiac: ezciztei fan *oray* gentilen lurriara eztare eziktey sar samaritanuen irietan;

6.— Baya fanztey lein cherca Israeleko etseco ardi galtiuac.

7.— Fan eta predicazacei, erraiten abañatandela ceurietaco reinua.

8.— *Eta, izaguntra emoteko ssen doctrina*, sontozacei eriac, resucitazacei ilac, ssainzacei leprosuac, egochzacei demoniuac. Emonzacei graciaz, graciaz errecibitutzeina.

9.— Etzacei eraman urreric, ez cidarric, eta ez deus deuriric ssaurien bolsetan edo folletan.

10.— Ez alforjaric biageco, ez obro ecioc tunicabat eta calcero elibat, eztare maquila edo berce armarii ssaurien defensataco; ceren trabajatandionac meressi du mantenadazabein.

11.— Zointan naiden ciudade edo aldeatan sarcindein, informaztei nor den artan *guizon prestu* edo dino errecidazaicein ostatuz eta egonztei bere etsen ssen faitiaraino.

12.— Etsian sartiari, salutacionia biardu izan: baquia izandeila etse contan.

13.— Ceren etsiac meressitanbadu, ssinenda ssen baquia arenagana; baya ezbaliadu meressitan, ssen baquia utzulenda ssauriequin.

14.— Nay ezdaiceanian errecibitu, ez ere beatu edo entzun ssen eliac edo erranac, erquitenzreilaric colaco etse edo ciudadetic, idarrauszei ssaurien zancuetaco errautsa.

15.— Eguiaz erraitendaceid Sodoma eta Gomorra izanendrela tratatruc rigore chiquiagorequin juicioco egunian, ecic calaco ciudadia.

16.— Beazt ei nic oilt andaicceila ardibicala ot suen art ian: correntatic izanbiartzei prudente suguien guisa, eta sencillo urssuen bicala.

17.— Baya recatu edo conturequin biciztei *colaco* *guizonequin*;

bada acusatenzlei tribunaletan, eta azotatenzlei bere sinagoguetan.

18.— Eta ene causaz izanenzrei eramanic gobernazalien eta erre-guen antziniara testimonio emoiteco edo emonzacein nitaz er eta nacioner.

19.— Comparecitaraz cintzeinian ere, ezdaizaiceila emon cuida-doric nola edo cer erranbiartzein, ceren emonic izanenbaizacei ordu cartan berian erranbiartzeina.

20.— Yaqueta ezbaizrei ssec aipatandiona edo mintzatandena gunian beicic ssen Aitaren Espirituia, zoin mintzatan baita ssen gatic edo ssen lequiuan.

21.— Gunian anasse batec entregatendu bere anasse muertiera edo ilic izaitra, eta aitac semiari: eta semiac azcatendra aiten contra eta ilaracentei.

22.— Eta ssec ssinnzrei edo eltenzrei izaitra odiatruc edo ugunt-ruc guciuenganic ene icenaren caussaz baya perseberatandena azquen ordu artio, caur salbatenda.

23.— Guniara bitartio perseguitandaiceinian ciudade batian ezca-paztei berciara. Eguiez erraitendaiceid etzeila acabaten conberti-tiaz ysrraeleco ciudadiac lein ecic ssindein guizonaren semia.

24.— Ezda discipulua obro ecic bere maistrua ez ere cerbucha-ria obrotaco ecic bere nausia.

(Continuará)